

**EBAZPENA, MARTXOAREN 1EKOA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, HONDARRIBIKO 26.3 «BASAKO» EREMUAREN HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN PARTZIALAREN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENA ZEHAZTEN DUENA.**

**AURREKARIAK**

2020ko abenduaren 17an, Hondarribiko Udalak Hondarribiko 26.3 Basako eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Partzialaren ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta hasteko eskaera egin zuen, bat etorrira Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrean (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta ingurumen-ebaluazioari buruzko Lege Orokorrean (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoarekin.

Eskabidearekin batera hainbat dokumentu erantsi ziren, tartean, planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatzen den dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa, honako hauetan ezarritako edukiarekin: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 18. artikulua, eta Planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua.

2021eko urtarrilaren 13an, ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultatzeko izapidea egin zuen Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Hondarribiko Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharra egiteko.

Legez ezarritako epea bukatuta, zenbait erantzun jaso dira hainbat erakunderen aldetik, eta haien emaitza espedientean jasota dago.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, bat etorrira abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 10. artikulua.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasagarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko analisia, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie planei eta programei, baita haien aldaketei ere, baldin eta Administrazio publiko batek onartzen baditu eta legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira artikulua honetan zehaztutako baldintzaren bat betetzen dutenean.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei dagokienez, eta plan horien artean sartzen da Hondarribiko 26.3 Basako eremuko Hiri Antolamenduko Plan Partziala.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organismoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1. artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutako guztiari jarraikiz, espedientean jasotako txostenak aztertuta eta aplikatu beharreko legeak eta arauak ikusita (hau da, otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzkoa; abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; irailaren 6ko 18/2020 Dekretua, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena; apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak), honako hau

#### EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa.** Hondarribiko 26.3 Basako eremuko Hiri Antolamenduko Plan Partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoari buruzko irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondoretarako bakarrik eta baldintza hauetan:

##### 1.- Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Hondarribiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (aurrerantzean, HAPO) Basako 6.3 hirigintza-eremuaren zehaztapenak jasotzen ditu. Eremu hori lurzoru urbanizagarri sektorizatua da eta bizitegi-garapen berrira bideratuta dago. Eremuaren antolamendu xehatua Plan Partzial batean zehazteko dago.

6.3 Basako hirigintza-eremua, Hondartza/Higer 6. auzokoa, 68.754 m<sup>2</sup>-ko lurzoru urbanizagarri sektorizatuari dagokio; horietatik, 64.707 m<sup>2</sup> «A.3/6.3» zonaren barnean kalifikatu dira (eraikuntza irekiko bizitegia), eta gainerako 4.046 m<sup>2</sup>-ak «E.1.1/6.3» Sistema Orokor gisa (errepideak).

Plan Partzialak (aurrerantzean, Plana) handitu egin du eremuaren azalera 73.944,78 m<sup>2</sup>-raino; hori dela-eta, lurzoru urbanizaezinen 5.191 m<sup>2</sup> birklasifikatu behar izan dira (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53. artikulua h) apartatua<sup>1</sup> eta HAPOren Arau Orokorren 3.1.2 artikulua 3. apartatua<sup>2</sup>). Doikuntza horien arrazoia da eremua hobeto egokitzea proposatutako lur-mugimenduetara;

<sup>1</sup>53. artikulua. Egiturazko antolamenduen zehaztapenak: h) *Irispideak finkatzea lurzoruetan, azalerak edo sektoreak sailkatzeko espazio-eremuen mugapena xeheld berraztertu ahal izateko –horrek, ordea, ez du ekarriko egiturazko antolamendua aldatzerik–. Hartarako, parametro eta inguruabar objektiboak finkatuko dira, errealitate fisikoari egokitzeko eta plan orokorraren helburuak errespetatzeko.*

<sup>2</sup>HAPOren 3.1.2 artikulua 3. apartatua: *Dena den, indarrean dagoen hirigintza-legeriaren arabera<sup>1</sup>, "sistema orokorra" zuzenean gauzatzeko "plangintza xehatua" edo, hala badagokio, obra-proiektuetan, "Plan Orokor" honetan ezarritako "zona globale" mugaketa bidoitu ahal izango da, honako irizpide eta muga hauekin: Birdoikuntzak egiteko, baldintza hauek bete behar dira: eraginpeko esparrurako Plan Orokorra ezarritako esku-hartze helburuak errespetatzea; behar adinako interes orokorra izango duen berariozko arozo tekniko, ekonomiko edo juridikoren bat ebazteko beharrene edo komenigarritasunean oinarritzea; eta dagoen lurralde fisikoaren eta proposatutako antolamenduen egaerara egokitzeko irizpide objektiboak erantzutea. Birdoikuntzetan, ezin izango da eraginpeko irabaziko erabileren "zona globale" dagokien azaleraren % 7tik gorako gehikuntzarik eda murrizketarik sartu.*

horretarako, betelan-ezponden edo hondeaketen eraginpean dauden lurzorua eta eraikuntza hobeto ezartzeko egoki diren eremuak gehitzen dira, eta beste batzuk, berriz, alde batera uzten dira — kanpoaldekoak, hain zuzen, aipatutako lur-mugimenduen elementuetatik bereizita baitaude—.

Sektoreari gehitu zaizkion lurzoru urbanizaezineko lursailak nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko landa-eremu izendatu dira (F.2); trantsizioko landa-paisaia (F.2.2), aldiz, sektorearen mendebaldeko muga sartutako eremuak; eta sektorearen iparraldean sartutako eremuak, mendigune (F.1), zehazki, babes bereziko baso (F.1.1).



*1. irudia. HAPOn mugaketa eta Plan Partzialak proposatutako mugaketa berria konparatzea (iturria: Hasierako dokumentua). Goiko muga, nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko lursailak. Eta eskuineko muga, babes bereziko baso-sailak.*

Honako proposamen hauek egin dituzte:

- **Bizitegi-garapena:** Proposatutako antolamenduak erregimen askeko bizitegi-programa bat egin du; gutxi gorabehera 232 etxebizitza izango dira, sestra gainean 2 eta 3 solairu dituztenak. Dauden eraikuntzak finkatu dira, «Etxe Txiki» baserria izan ezik. 24.180 m<sup>2</sup>(s)-ko hirigintza-eraikigarritasuna antolatu da; horietatik, 23.029 m<sup>2</sup>(s) etxebizitza-erabilerari dagozkio eta 1.151 m<sup>2</sup>(s) merkataritza-lokalei (ekipamendu pribatua).
- **Irisgarritasuna:** «6.3 Basako» eremuak irisgarritasun orokor eskasa du. HAPOk iradokitako bide-irtenbidea txertatu du Planak, eta sarbide berriak jarri dizkie Alaiak eta Aitonandienea bizitegi multzoei. Era berean, Aterpetxera eta Aitonandienera iristeko dauden bideetan, sektorerako sarbideak jarri dira eta San Telmoko bide zaharren hasierako tartea birgaitu da.

Urbanizazioak malda handiak gainditu behar dituzenez, espaloiaren sarea eskailerekin eta igogailu publiko batekin osatu da.

- **Aparkalekuak:** Lurzati pribatuetan aparkalekuak egitea proiektatu da: 500 ibilgailurako aparkalekua «a.3» bizitegi-lurzatietan eta 55erako aparkalekua «b.1» askotariko jarduera ekonomikoko lurzatietan (merkataritza-lokalak eta komunitate-ekipamendu publikoko lokalak) eta 157rako jabari publikoko lurzoruetan.
- **Drainatze sarea:** Proiektatutako drainatze-sareak sektorean bertan nahiz mendi-hegalaren goialdeko arro isurkietan, sektorearekiko mugakideetan, sortutako jariatze-urak hustu behar ditu. Arro horietako isurkiak biltzen dituzten ur-ibilguak aire zabaleko erreka txiki gisa tratatuko dira, ahal dela, eta zeharkatzen dituzten berdeguneetan txertatuta geratuko dira. Drainatze-sare horrek bost hodi-biltzaile izango ditu, bideetako lurgaineko urak biltzeko.
- **Saneamendu-sarea:** Ø 300 mm-ko PVCzko hodi biltzaile bat proiektatu da. Hodi biltzaile hori sare orokorrera konektatuko da Txingudiko Zerbitzuak gauzatzen ari den ur beltzen biltodiaren amaierako putzuan, zeinak bilduko baititu Higer Bidean dauden eraikuntzetako ur beltzen harguneak, Basako

sektorearen barruan proiektatutako ur beltzen sarea eta Alaiak eta Aitonandienea multzoetako eraikinetako eta Juan Sebastián Elcano Aterpetxeko isuriak.

- Uraren hornidura-sarea: Txingudiko Zerbitzuak enpresak aurreikusten du Guadalupen ur-biltegi berria eraikitzea. Ur-biltegi hori Txomin Eneako ponpaketatik ura ateraz hornituko da eta Jaizkibelen amaierako mutur horretako hiri-garapenak hornituko ditu (+60,0 m-tik gorako kotetan daude, 6.3 Basako sektoreko goialdeko eraikuntzak egongo diren bezala).
- Gainerako sareak: Aurreikusten da tentsio ertaineko eta behe-tentsioko aireko linea guztiak lurperatzea sektorean, garapen berriko bideetatik joango diren eroanbideen bitartez. Gas naturala eta telefonia proiektatutako bide berrien bitartez hornitzen dira. Sektoreko argi guztietan LED teknologia erabiliko da, eta horrekin bermatzen da energia-kontsumoa askoz ere txikiagoa izango dela beste aukera batzuekin alderatuta.
- Lur-mugimenduak: «6.3 Basako» sektoreko lursailaren baldintzak (desnibel eta aldapa handiak, % 20 ingurukoak batez beste) eta «irisgarritasunari» buruzko araudiak ezartzen dituen mugak direla-eta, proiektatutako antolamenduak eskatzen duen lur-mugimendua gehiegizkoa da, 77.000 m<sup>3</sup> ingurukoa (102.368,20 m<sup>3</sup> hondeaketa eta 25.587,00 m<sup>3</sup> betelanak). Sektorea egikaritzeko lanak 10/12 urtetik gora luzatuko direnez nahitaez, lur-mugimenduak etapa desberdin askotan egin beharko dira. Hasiera batean, urbanizazio orokorraren barnean, lur-mugimendu txiki bat egingo da, eusteko plataformekin, eta plataformok eraikinetarako sarbideak dauden errepideen altueran egongo dira. Dena dela, lan horietatik kanpo geratuko dira horma-lanak eta nahitaez induskatu beharko diren sotoenak.

Lursailaren topografia dela eta, kotan alde handiak daudenez, eusteko hormak eta egiturak eraiki beharko dira.

## 2.- Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; nagusiki, 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketak-lerroak hartuko dira plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, ingurumena babesteko, planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak hartuko dira kontuan.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute planaren ingurumen-ebaluazioa:

- a) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, baita baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- b) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- c) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- d) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- e) Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektagarritasun ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- f) Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.

- h) Energia aurrezte, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera eta baterako sorkuntza sustatzea.
- i) Aire garbia bermatzea, baita zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- j) Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea apaltzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- k) Arrisku naturalak gutxitzea.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoak baloratu beharko du proposatutako jarduerak nola integratzen dituzten aipatutako garapen jasangarriko printzipioetatik ondorioztatutako ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak. Horretarako, helburuok betetzeko hartutako neurriak/irizpideak identifikatu beharko ditu.

### 3. Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

«6.3 Basoko» sektorea Hondarribiko hirigunearen iparraldean dago, Jaizkibeleko ekialdeko muturreko magalean, eta behealdean Higer Bidea GI-3361 foru-errepidearekin egiten du muga. Ereku horretan, gaur egun, baratzeak eta zelaiak, eta 5 bizitegi-eraikin daude, 11 etxebizitza guztira, hainbat bidez lotuta daudenak elkarri. Era berean, zuhaitz-lerroak eta taldeak daude, sakabanatuak eta garrantzi gutxiak, bideen ertzetan eta etxebizitza-eraikinen inguruan.

Honako hauek dira ingurumen-ezaugarri nagusiak:

- Ikusten da 3 ibarbide txiki daudela, Higer Bideak hainbat modutara zeharkatzen dituenak, eta euri asko egiten duenean, ura galtzadara isurtzen dutela. Hiru ibarbideek 1 km<sup>2</sup> baino gutxiagoko lurgaineko arroak dituzte, azterketa honen eremutik kanpo elkartzen dira eta ia erabat lurpekoa den ibilbidea egin ondoren, hiri-bilbearen azpitik, Bidasoa ibaiaren estuariara isurtzen dituzte urak zuzenean, eremutik 360 m ingurura. Erekuaren ipar-ekialdetik 125 bat metrora, Miñunea baserritik hurbil (Akartegin), Meaka izeneko iturburu legezkatua dago, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera duena.

- Ereku ez dago eremu babestu batean kokatuta, ezta natura-intereseko inongo leku inbentariatuta ere; baina 200-300 m-ko distantziara, ipar-mendebaldean, Jaizkibel KBE dago (ES2120017) eta 2,2 km-ko distantziara, eremuaren hegoaldean, Txingudi HBBEa dago (ES0000243).

- Garrantzi handieneko landaredia da: bertako espezieen baso-guneak (zehazki, makalak) eta eremuan barrena zabaldutako gainerako hostozabalak (haritzak, lizarrak, haltzak eta hurritzak), zeinek eremuaren % 4,8 inguru hartzen baitute, eta sektore osoan banatuta dauden eite handiko intereseko zuhaitzak (38 inguru) eta EBren intereseko habitatak (BIH) 6510 –altitude baxuetako sega-belardiak, zinak eremuaren % 9 baitira, orotara, 6.766 m<sup>2</sup>–. Erekuaren gainerakoan, sastrakadiak, iratzediak, baratzeak, fruta-arbolak, lorategiak eta belardiak daude. Nabarmentzekoa da zenbait espezie aloktono inbaditzaileen formazioak daudela.

- Erekuaren dagoen landaredia kontuan hartuta, eremuko fauna landazabal atlantikoko ohikoa da. Habitat egokia ematen die ugaltzeko, babesteko eta/edo elikatzeko, biotopo onuragarria baita ornodun-espezie askorentzat (bertan bizi direnentzat, espezie negutarrentzat eta/edo migratzaileentzat). Gainera, Jaizkibel KBE hurbil dagoenez (eremu horretan Batasunaren intereseko espezie asko identifikatu dira), hegazti jakin batzuk ikus daitezke, hala nola antzandobia, lepixulia (*Jynx torquilla*), zata arrunta (*Caprimulgus europaeus*) (azken biak Interes Berezikoko (IB) gisa katalogatuta daude), baita zenbait kiroptero espezie ere.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, ikusten da bi zonatan, eremuaren bi muturretan (eremuaren azalera guztiaren % 11) sekulako higadura-prozesuak daudela (>200t/ha eta urte).

Lurzatiaren desnibel handia dago: magalaren batez besteko aldapa % 20 ingurukoa da. Lurzatiaren goiko ertzeko sestrak, mendebaldean, honako kota hauen artean daude: +41,0 hegoaldeko muturrean –



Arroyonea baserriari dagozkionak– eta +68,0 m Aitonandinea multzoaren inguruetan. Ekialdeko ertzeko sestrak kota hauen artean daude: +17,50 m J. S. Elcano Aterpetxerako sarbidean, Higer Bidean, eta +50,40 m punturik altuenean, eremuaren iparraldeko muturrean, halaber, Higer Bidearen gainean.

Gainera, Planaren azterketa akustikoak ondorioztatzen du hiru aldietarako, hots, Ld (eguna), Le (arratsaldea) eta Ln (gaua) aldietarako, gaur egun kalitate akustikoaren helburuak gainditzen direla GI-3361 errepidearen eta azterketaren xede eremuan dauden gainerako bideen paraleloan dagoen zerrenda batean, bertan dagoen zirkulazioarengatik, bereziki Ln (gaua) aldian.

#### **4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak**

Planaren eremuan, ez da hauteman eremu desegokirik jarduketak egiteko, betiere aplikatu beharreko ingurumen-araudia errespetatzen bada; bereziki, plangintza hidrologikoari buruzkoa.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterlan estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnosistiko egoki bat egin beharko da, eta haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahul edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera eraman beharko du. Horri dagokionez, aztertu beharko da Planak nola hartzen duen kontuan lurzatian dagoen arrisku geoteknikoa.

Planak planteatzen dituen jarduketaren garapena baldintzatu ahal duten beste alderdi batzuk dira kutsatutako lurzoruen presentziarekin lotutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko Dekretua (urriaren 16ko 213/2012 Dekretua) aplikatzearen ondoriozko mugaketekin zerikusia dutenak. Bi alderdi horiek azterketan jorratuko dira.

#### **5. Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterlan laburra.**

Jarraian ingurumen-alderdi garrantzitsuenak zein diren laburbiltzen da –ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenetan agertzen dira alderdi horiek–:

- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, landarediak pairatuko duen eragina minimizatzeko neurriak behar bezala zehaztu beharko dira ingurumen-azterketa estrategikoan. Gainera, paisaia leheneratzeko Plana Plan Partzialari erantsi beharko zaio, dagokion aurrekontuarekin.
- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, ez zaio kultura-ondareari erasango.

#### **6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.**

Ingurumen-txosten estrategikoak Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) IV. eranskinean ezarritako edukia bitartean beharko du, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

##### **1. Proposatutako planaren deskribapena**

- 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
- 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
- 1.3. Plangintza-aukerak

## 2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea

- 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
- 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterlana) hainbat alderdi landu behar dituela ahalik eta zabalena eta xeheena; honako hauek, zehazki:

### **6.1. Planaren deskribapena.**

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeko etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketan ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

#### 6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak.

a. Azterlanean, laburpen txiki bat jasoko da planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, azterlanak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, planaren elaborazioa egitean, ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Arauetan eta Planarekin hierarkia-loturarik ez duten bestelako planetan edo programetan ezarritako ingurumen-babeseko irizpideak, helburuak eta zehaztapenak zehatuko dira, aplikatu behar badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan hauek hartuko dira kontuan:

- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren berrikuspena (2021-2027).
- EAEko ibaiak eta errekek Antolatze Lurralde Plan Sektoriala.
- Donostialdea - Bidasoa Beheko eremu funtzionalaren lurralde plan partziala.
- Paisaiaren katalogoa eta zehaztapenak. Donostiako Eremu Funtzionala.
- EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. artikulua eta hurrengoak.

#### 6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planean hautatutako aukeraren bidez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Planaren irismena behar bezala definituta utzi behar da,

plana egin aurreko aurreikuspenak (Planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

b. Aurreikuspen bat egingo da planean egiten diren proposamenak gauzatzeko burutuko diren proiektu eta jarduketan izaerari buruz, batik bat lurzoru kutsatuei eta urbanizazio-proiektuari buruz.

c. Deskribatuko da planeko zer ekintzak izan dezaketen eragina ingurumenean, eta ekintza horiek kokatuko dira; garrantzi handienetik txikienera hierarkizatutako dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterlanaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketan kokapena, pdf eta shape formatuetan.

#### 6.1.3. Plangintza-aukerak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Lurzatiaren mugak aldatzen ez dituen aukera proposatu beharko da, eta Planak egindako proposamena justifikatuko da.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-aukerak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako aukera.

d. Aztertutako aukerak kartografikoki jasoko dira.

#### **6.2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea**

Azterlanak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren inguruerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara. Horretarako, naturagune babestuekiko hurbiltasuna hartu beharko da kontuan.



Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.

Azterlanak eskalako planoak jasoko ditu, ingurunearen aldagaiak islatzeko modukoak.

#### 6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru-mota. Berriz sailkatutako zona berriak zehazki deskribatu beharko dira.

b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak jakinaraziko dira, baleude; esaterako, ibai-ibilguak, fauna- eta flora-espezie mehatxatuen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko lehentasuneko habitatak eta landaredia, flora eta fauna autoktonoak. Egungo elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, baita interes maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak ere, plana gauzatzean areagotu daitezkeenak. Lurzatian dauden ibarbideen ingurumen-egoeraren deskribapena azpimarratuko da.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspegitik elementu interesgarriak ote dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei dagokienez, bereziki arrisku geoteknikoei dagokienez, lortu ahal izan diren datu guztiak emango dira. Gainera, klima-aldaketatik eratorritako arriskuak edo aipatzea merezi duen beste edozein ingurumen-arrisku aztertuko da.

e. Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Iturri kutsatzaile izan daitezkeenak identifikatuko dira.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria eta abar.

#### 6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoerei, baita eragina pairatu dezaketen alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak hauteman beharko du zer eremurik sor ditzakeen arazoak ingurumenaren ikuspegitik, eremu horiek proposameneren garapenarekin bateragarriak izan daitezen; horretarako, kontuan hartu beharko du ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremu edo elementuak daudela, besteak beste Ebazpen honen 3. apartatuan aipatzen direnak.

Era berean, eremuaren ingurumen-diagnostiko zehatza egin beharko da, eremuaren harrera-gaitasuna, arriskuguneak eta ingurune ahul edo kalteberak ebaluatu ahal izateko.

### 6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da zer ondorio izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek ingurumen-kalitateko elementuen gainean, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta horien ezaugarriak deskribatzeko, aztertuko da zer-nolako interakzioa dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoen artean, baita zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitekeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Hala dagokionean, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Deskribatutako planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, horren erreferentzia behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Ibarbideek izan dezaketen eraginetik eratorritakoak.
- Lur-mugimenduetatik eta hainbat euste-horma eta -egitura jartzetik eratorritakoak.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2013 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa), aurreikusitako erabileren arabera. Ildo horretan, xehetasunez deskribatuko dira kalitate akustikoko helburuak betetzeko behar diren neurri zuzentzaileak.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Ondorioen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
  - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
  - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
  - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilita planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruz. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen ondorio edo efektu horien aurreikuspenean.

c. Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko dazein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-ondorioak, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

#### 6.4. Prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den azterlanaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta hautemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta 3. apartatuan identifikatutako ondorio edo efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Ezingo dira aldatu, ezta artifizialdu ere, ibaiko ur-bazterrak eta ibai-korridoreari dibertsitate eta funtzionaltasun ekologikoa eta paisajistikoa ematen dioten elementuak, eta haiek leheneratzea, berreskuratzea eta hobetzea sustatuko da ahal den guztietan.
- Era berean, irizpideak zehaztuko dira planaren garapena paisaian integratzeko, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko gainazalak ezarrita, eta kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako Udalsarea 21 20b zenbakiko koadernoan («Lorategi eta berdegune jasagarriak diseinatzeko eskuliburua») jasotako gomendio eta neurriak. Ildo horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, hala nola *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* edo beste batzuk. Orobat, neurriak hartuko dira espezie horiek kentzeko eta lur-mugimenduen bidez hedatzea ekiditeko; horretarako, kontrolatu egingo da birlandaketan eta urbanizazioko lorategietan erabiliko diren mailegu-materialen eta landare-lurraren jatorria eta osaera.
- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak zenbait neurri jasoko ditu, planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arintzeko eta hartara egokitzeko. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koadernoan» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko».

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarri edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adieraziko da.

#### 6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, non deskribatuko baita zer neurri aurreikusten den Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak gainbegiratzeko. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izan beharko da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen eboluzioa zaintzea, baita plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen eboluzioa ere.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak egiaztatzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihesteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek azterlanaren 6.4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin bat etorri beharko dute.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterlanean, baita datuak biltzeko zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean ere, aldizkakotasunari eta erabiliko diren metodoei dagokienez.

#### **6.6. Ingurumen-laburpena**

a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, azterlanaren 6.1.1 apartatuan deskribatu denari jarraikiz.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta/edo konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio esanguratsu horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori gauzatu ahal izateko, azterlanaren gainerako apartatueta jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

#### **6.7. Laburpen ez-teknikoa**

Azterketak aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez tekniko bat izango du; publikoak oro har ulertzeko moduko informazio zehatza izango du, aztertutako alderdi guztiak landuko ditu eta, era berean, informazio grafikoa izango du, dokumentu buruaskia eta azterketarekiko independentea izan dadin.

#### **7. Jendaurreko informazioaren izapideak eta kontsultak.**

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua zer xedatzen duten ukitutako administrazio publikoetara eta interesdunei egin beharreko kontsultei buruz, erakunde eta pertsona interesdunen zerrenda hau hartuko da kontuan:

#### **Eusko Jaurlaritza:**

- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.

Gipuzkoako Aldundia:

- Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiaren Fauna eta Flora Zerbitzua.
- Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiaren Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzua.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia.

Herritar interesdunak:

- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkarte.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarte.
- Itsas Enara Ornitologia Elkarte.
- Eguzki. «Eguzkizaleak» aisialdirako elkarte.

**8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.**

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak: <https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2injinp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu\\_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf)

**Bigarrena.** Ebazpen hau Hondarribiko Udalari jakinaraztea.

**Hirugarrena.** Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 1a.

  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
JAVIER AGIRRE ORCAJO  
DIRECTOR DE ADMINISTRACIÓN AMBIENTAL  
INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA  
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE